

2019an indartu egin du BGAE indibidualen merkatuan zuen **lidergoa**, **%47ko** kuota lortuta

Baskepensionesek %8,3 handitu du kudeatutako ondarea, 5.688 milioi eurora arte

- Ekitaldiko gakoak **%53** hazi ostean sarrera garbieran lortutako errekorra, eta merkatuen bilakaera onagatik zenbatu diren errealizazioak izan dira
- Aurreikuspen indibidualeko produktuetan Estatuko laugarren taldea da Kutxabank, **7.000** milioi eurotik gora kudeatzen ditu eta berezko merkatu kuotarengatik dagokiona baino kuota handiagoa du
- Kudeatzen diren aurreikuspen produktu guztiak gizarte ikuspegitik jasagarriak diren inbertsio-irizpideen baitan inbertitu dira
- Titularraren batez besteko profila **21.000** euroko ondarea duen **45** urtez gorako pertsona bati dagokio, batik bat plan mistoetan inbertitzen duena

2020ko urtarrilaren 23an. 2019 **urte ona** izan da Kutxabank Taldeak kudeatzen dituen aurreikuspen produktuentzat, eta plan indibidualetan Estatuko laugarren postuan egonkortu da Taldea. Urtearen amaieran **7.000 milioi** eurotik gorako ondarea kudeatzen zuen, eta **%7,62ko** merkatu kuota zeukan, berez finantza-sisteman duen pisuarengatik dagokiona baino handiagoa. Guztira **400.000** bezero inguruk jarri dute Taldeko pentsio planetan konfiantza.

400.000 bezero inguruk ematen diote konfiantza aurreikuspenean

Aurreikuspenean ekitaldiak izan duen bilakaeraren gako nagusiak bi izan dira funtsean. Batetik urtean zehar **sarrera garbi positiboek** izan duten bilakaera bikaina, **90,1 milioi** eurotik gorakoak izan baitira **Baskepensionen BGAEn**. Eraitza honek errekor berria ezarri du, aurreko urtearen aldean **%53** hazi baita.

Atal honetan deigarria izan da bezeroen emaniko laguntzak eta kudeaketa komertzialak izan duten erantzuna, bai eta errentagarritasunean Kutxabanken aurreikuspen produktuen izan duten hazkundera ere. Honela, **Baskepensionen BGAEra** izan diren **aldaketa garbiak** nabarmen hazi dira, eta **22 milioi** eurotik gora jaso baitira.

Baskepensionesek 22 milioi euro jaso ditu lekualdaketa garbieran

Hazkundearen beste arrazoi nagusia merkatuek izan duten bilakaera positiboengatik lortutako errebalorizazioak izan dira, testuinguruari egoki erantzun baitio finantza Taldeak.

**Euskadin,
Baskepensionesez
273.000 bazkidetik
gora ditu**

Honekin guztiarekin, Kutxabankek indartu egin du euskal merkatuan aurreikuspen indibidualeko produktuetan orain arte zuen lidergoa. Urte amaieran %46,9ko kuota zuen, **5.688 milioi** euroko ondarea kudeatzen zuen -2018an baino **%8,31** handiagoa-, eta **273.000 bazkide** baino gehiago zituen.

Partaidearen profila

Kutxabankek azken urteetan abian jarri dituen irizpide komertzialengatik, aldatzen ari da finantza Taldearen bezeroek etorkizuneko aurrezkiak ikusteko duten modua, batik bat pensio publikoen osagarriak izango diren aurrezkiak osatzerakoan. Produktu hauek ohikoa da ekarpenak garai zehatz batean egitea, batik bat **urteko azken asteetan**. Joera hau apurka-apurka aldatzen ari den arren, oraindik ere ekarpen guztien **%46 urte amaieran** egiten den.

Baskepensionen BGAEko bazkideek batez beste duten ondare ertaina **21.000 euro** ingurukoa da, aurreko urtean baino %7,8 handiagoa, eta **45 urtez gorako** artean kontzentratzen da **saldo osoaren %90**.

**45 urtez gorakoa,
21.000 euroko
saldo ertainarekin,
eta urtean 1.616
euroko ekarpena
egiten duena**

Adin-talde desberdinek kontzentratzen duten ondareari dagokionez, jubilatzeke adinean daudenek **40.000 euro** inguru dauzkate aurreztuta.

2019an bezeroek batez beste egin zuten ekarpena **1.616 eurokoa** izan zen, aurreko ekitaldian baino %5,1 handiagoa. Genero ikuspegiko ezaugarriari dagokionez, **%53 gizonak** dira eta **%47 emakumezkoak**. **30 eta 45** urte arteko bezeroak, bazkide guztien **%30** dira.

**Ekarpenen %30
bulegoetatik kanpo
egiten da,
mugikorrean eta
ordenagailuan**

Joera aldaketa ekarpenak egiteko hautatzen diren kanaletan ere sumatzen da. Aurreikuspeneko eragiketarako egiteko telefono mugikorra erabili ahal izatearen ondorioz, geroz eta bezero gutxiago joaten dira bulegoetara aurrez-aurreko ekarpenak sinatzera. Hain justu ere, pensio planetan eta BGAEtan egiten diren kontratazio guztien **%30 urruneko kanalen** bidez egiten dira.

Kutxabanken bezeroek gehien aukeratzen duten aurreikuspen plan mota zehatzari dagokionez, %81,5 plan mistoetan kontzentratzen da, eta errenta aldakorrean zenbateko handiagoa inbertitzen duten planek bilakaera hobea izan dute. Urrun gelditzen dira **plan bermatuak**, plan guztien **%5 baino** ez baitira.

Kudeatzen diren aurreikuspen produktuetan egiten diren inbertsio guztiak **gizarte ikuspegitik irizpide arduratsuen** baitan egiten dira. Honela bermatzen da kapitala inbertitzen den enpresa guztiek Giza-eskubideak eta ingurugiroaren zaintza errespetatzen dituztela, eta bidezkoak direla beren Gobernu-jokabideak eta fiskaltza.